Sin./Fdo.: JOSEBA MIKEL GARCIA PEREZ 2023-04-04
IDAZKARITZA NAGUSIAREN UNITATEKO BURUA
JEFE/A UNIDAD DE SECRETARÍA GENERAL
Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2023-04-04
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A



**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI ANDREAK**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita hiruko apirilaren lauan** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 27. gaia.**

**“27.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEA ENPRESAGINTZA KOOP. E.REN ARTEAN SINATUKO DEN HITZARMENA ONESTEKO. HITZARMEN HORREN BITARTEZ, DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEN DA IKERKETAREN ETA EKIMEN AKADEMIKOEN ARLOKO LAN BAT EGITEKO, OPEN DATA BIZKAIAREN EREMUAN.**

**Lehenengoa**.- **MU ENPRESAGINTZA KOOP. E.ri, (IFZ; F-20068490)** 2023ko ekitaldiko aurrekontuko **HOGEI MILA EURO (20.000,00 Euro)** ematea, dirulaguntza zuzen modura, ikerketaren eta ekimen akademikoen arloko lan bat egiteko, **Open Data Bizkaia**ren eremuan. Dirulaguntza aurrekontu-partida honen kargura emango da:

Ekonomikoa: 451,00

Programa: 491119

Organikoa: 0712

Proiektu zk.: 2020/0035

**Bigarrena**.- MU ENPRESAGINTZA KOOP. E.ren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean hitzarmena egin dadila baimentzea. Horretan, alde bien arteko baldintza eta konpromisoak jasotzen dira, zeinen arabera ematen den lehenengo puntuan adierazitako diru-ekarpena. Hitzarmenaren testua, jasota gera dadin, bilkura-saio honen aktari gehitu zaio 19. eranskin moduan.

**ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, DIPUTADA FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIA DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **cuatro de abril de dos mil veintitrés**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo**: Asunto nº 27 del Orden del Día.**

**“27º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA APROBACIÓN DEL CONVENIO A SUSCRIBIR ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y MONDRAGÓN UNIBERTSITATEA ENPRE-SAGINTZA S. COOP POR EL QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN DIRECTA PARA REALIZAR UN TRABAJO DE INVESTIGACIÓN E INICIATIVAS ACADÉMICAS EN EL ÁMBITO DE OPEN DATA BIZKAIA.**

**Primero**.- Conceder a **MU ENPRESAGINTZA S. COOP., con NIF F-20068490,** la cantidad de **VEINTE MIL EUROS (20.000,00 Euros),** del presupuesto del ejercicio 2023, en concepto de subvención directa, para realizar un trabajo de investigación e iniciativas académicas en el ámbito de **Open Data Bizkaia,** con cargo a la partida presupuestaria siguiente:

Económico: 451.00

Programa: 491119

Orgánico: 0712

Proyecto nº: 2020/0035

**Segundo**.- Autorizar la suscripción del Convenio, entre MU ENPRESAGINTZA S. COOP. y la Diputación Foral de Bizkaia, cuyo texto para constancia, se une al Acta de la presente sesión como Anexo nº 19, en el cual se recogen las condiciones y compromisos entre ambas partes y por las que se otorga la aportación indicada en el punto primero.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**Hirugarrena**.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru diputatu titularrari ahalmena emango zaio, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz, aipaturiko hitzarmena formalizatzeko dokumentuak sina ditzan, baita hori garatzeko, ezartzeko eta betearazteko behar adina xedapen emateko ere, gerta litezkeen itzulketen espedienteak izapidetu eta ebaztea barne, baita dirulaguntzaren baldintzak aldatzeko ahalmena ere, gehieneko zenbatekoa aldatzeko ahalmena izan ezik.

**Tercero**.- Facultar a la Ilma. Sra. Diputada Foral, titular del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, para que, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, firme los documentos de formalización del referido Convenio así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo, aplicación y ejecución, incluyendo la tramitación y resolución de eventuales expedientes de reintegro, así como de modificación de las condiciones de la subvención, excepto en lo que se refiere a su cuantía máxima.

**Laugarrena**.- Erabaki hau jakinaraziko zaio MU ENPRESAGINTZA KOOP. E.ri, eta, era berean, horren eta dagozkion txosten ekonomikoen berri emango zaio Ogasun eta Finantza Sailaren Fiskalizazio Zerbitzuari.

**Cuarto**.- Notificar el presente acuerdo a MU ENPRESAGINTZA S. COOP. y dar traslado de este y de los informes económicos correspondientes al Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

**Bosgarrena**.- Formalizatutako hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasun Atarian argitaratzea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 3.3 artikuluaren araberako 9.1 e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz**"**.

**Quinto**.- Publicar, una vez suscrito el Convenio, en el Portal de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 9.1. e) en relación con el artículo 3.3 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia**"**.

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

***ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME***

Idazkaritza orokorreko unitateko burua.Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

***ZIURTATU. CERTIFICA*** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari andreak. La diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretaria ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA MU ENPRESAGINTZA S. COOP-REN ARTEKO HITZARMENA, OPEN DATA EREMUAN IKERKETA ETA EKIMEN AKADEMIKOAK EGITEKO, ALDERDIEK ZUZENEKO DIRULAGUNTZAREN KUDEAKETAN ETA KONTROLEAN DITUZTEN BETEBEHARRAK JASOTZEN DITUENA.

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y MU ENPRESAGINTZA S. COOP. QUE RECOGE LAS OBLIGACIONES DE LAS PARTES EN LA GESTIÓN SEGUIMIENTO Y CONTROL DE LA SUBVENCIÓN DIRECTA PARA REALIZAR UN TRABAJO DE INVESTIGACIÓN E INICIATIVAS ACADÉMICAS EN EL ÁMBITO DE OPEN DATA.

Bilbon, sinatzen den egunean.

En Bilbao, a la fecha de la firma.

BILDUTA

REUNIDOS

Alde batetik, Elixabete Etxanobe Landajuela andre agurgarriak Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean (IFZ: P4800000D) eta horren ordezkari gisa, Herri Administrazio eta Erakundeekiko Harremanetarako foru diputatu gisa dituen eskuduntzei jarraiki.

De una parte, Dña. Elixabete Etxanobe Landajuela, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, con NIF: P4800000D, en virtud de las atribuciones que tiene conferidas en su calidad de Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Bestetik, Lander Beloki Mendizabal jauna, MU ENPRESAGINTZA S. COOP-ren izenean (IFZ: F-20068490) eta hura ordezkatuz, zuzendari nagusia den aldetik.

De otra, D. Lander Beloki Mendizabal, en nombre y representación de la MU ENPRESAGINTZA S. COOP., con NIF: F-20068490, en su calidad de Director General.

Alderdiek beharrezko gaitasun juridikoa aintzatesten dute hitzarmen hau egiteko, eta hori dela bide,

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para la celebración del presente Convenio y en su virtud

ADIERAZI DUTE

EXPONEN

<u>LEHENA.-</u> Bizkaiko Foru Aldundiko Estrategia Digitalaren eta Korporatiboaren Kabineteak, lankidetzarako eta gobernu irekirako espazioak sustatzeko duen eskumena baliatuz, eta, zehazkiago, Gobernamendu Onerako eta

<u>PRIMERO.-</u> El Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, en el ejercicio de su competencia de impulsar espacios de colaboración y gobierno abierto, y más concretamente, la Dirección de Buen

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioko eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Gardentasunerako Zuzendaritzak, gizarte berritzailea sustatzeko eta datu irekien bidez Bizkairako balioa sortzeko aplikazioa bultzatzeko jarduerak garatzen ditu.

Gobierno y Transparencia, desarrolla actuaciones tendentes al impulso de una sociedad innovadora y su aplicación para generar valor para Bizkaia a través de los datos abiertos.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaia Egiten 2019-2023 estrategiaren bidez, erronka nagusitzat hartu du 2020-2022rako Gardentasun eta Datu Irekien Plana egitea. Plan horrek jarraipena ematen dio gardentasunaren arloan hasitako bideari, eta, gainera, berritasun gisa, Bizkaiko Datu Irekien Estrategia berria txertatzen du, balio erantsi handiko zerbitzuak eta laguntzak eskainiz emakumeen eta gizonen arteko berdintasunetik abiatutako ekimenei.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través de la estrategia Bizkaia Egiten 2019-2023, ha fijado como uno de sus principales desafíos la elaboración del Plan de Transparencia y Datos Abiertos 2020-2022, que da continuidad al camino iniciado en materia de transparencia y que, además, incorpora como novedad la nueva Estrategia de Datos Abiertos de Bizkaia, ofreciendo servicios y ayudas de alto valor añadido a las iniciativas desde la igualdad de mujeres y hombres.

<u>BIGARRENA</u>.- Hitzarmen honen xedeak dira MU ENPRESAGINTZA S. COOP-ri (IFZ: F-20068490) zuzeneko dirulaguntza bat emateari lotutako baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Open Data Bizkaiaren esparruan ikerketa-lana eta ekimen akademikoak garatzeko eta gauzatzeko.

<u>SEGUNDO</u>.- El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a MU ENPRESAGINTZA S. COOP., NIF: F-20068490, para el desarrollo y ejecución de un trabajo de investigación e iniciativas académicas en el ámbito de Open Data Bizkaia.

Lan hau burutzeko, ezinbestekoa da pertsona prestatuak eta berritzaileak izatea, datu irekien berrerabilera sustatzeko jarduerak gara ditzaten.

Para la realización de este trabajo, es imprescindible contar con personas formadas e innovadoras de cara a que estas desarrollen actuaciones que tiendan al impulso de la reutilización de los datos abiertos.

<u>HIRUGARRENA</u>.- MU ENPRESAGINTZA S. COOP., MONDRAGON UNIBERTSITATEA S. COOP. bigarren mailako kooperatiba-sozietateko kidea dena, erakunde independentea da, irabazi-asmorik gabekoa eta onura publikokoa, eta pertsonen eta gizartearen hezkuntza eta garapena sustatzen dituena eredu kooperatibo batetik abiatuta.

<u>TERCERO</u>.- MU ENPRESAGINTZA S. COOP., que pertenece a sociedad cooperativa de segundo grado MONDRAGON UNIBERTSITATEA S. COOP., es una entidad independiente, sin ánimo de lucro y de utilidad pública que promueve la educación y el desarrollo de las personas y la sociedad desde un modelo cooperativo.

Bere jarduera nagusiak prestakuntza eta ikerketa, garapena eta berrikuntza dira. Ibilbide horietan, datuak bistaratzea (Power BI, Google Data Studio eta Tableau bezalako

Sus actividades principales son la formación y la investigación, el desarrollo y la innovación. En estos itinerarios, se trabajan ámbitos como la visualización de datos (herramientas como

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

tresnak), azterketa analitikoa (gainbegiratu gabeko, gainbegiratutako eta errefortzuzko ikaskuntza), cloud teknologiak (AWS) edo datuen gaineko kudeaketa estrategikoa (gobernu-eredua, datuaren monetizazioa) lantzen dira. Gainera, ikerketa- eta transferentzia-jarduerak enpresei negozio berriak garatzen laguntzea du helburu, bai eta merkatuaren eta erakunde horiek osatzen edo osatuko dituzten pertsonen etengabeko hobekuntza ere.

Power BI, Google Data Studio y Tableau), la analítica (aprendizaje no supervisado, supervisado y por refuerzo) tecnologías cloud (AWS) o gestión estratégica sobre los datos (modelo de gobierno, monetización del dato). Además, la actividad investigadora y de transferencia centra sus esfuerzos en acompañar a las empresas en el desarrollo de nuevos negocios, así como la mejora continua del mercado y de las personas que forman o van a formar parte de dichas organizaciones.

LAUGARRENA.- Datu irekien estrategiaren helburua da Open Data Bizkaia atarian dauden datu irekien berrerabilera areagotzea. Horretarako, datu horien erabiltzaile izan daitezkeenen beharrak aztertu beharko dira, baita ente publikoaren erantzuteko gaitasuna ere, Bizkaiko garapen ekonomikoarekin bat datozen beharrak eta interes orokorra indartuz.

CUARTO.- La estrategia de datos abiertos promueve la reutilización de datos abiertos disponibles en el portal de Open Data Bizkaia. Por ello precisa analizar las necesidades de los potenciales usuarios de dichos datos, así como la capacidad de respuesta del ente público, potenciando las necesidades que estén alineadas con el desarrollo económico de Bizkaia, así como el interés general.

BOSGARRENA.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren aldeko xedapenak ezartzen ditu. Ondorioz, hitzarmen hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak egiteko, emakumeen eta gizonen berdintasun printzipioa bete beharra dago, emakumeen eta gizonen tratamendu, protagonismo eta balorazio berdinak izateko konpromiso irmoa izanik, irudia balio hauekin sustatuz: berdintasuna, presentzia orekatua, baterako erantzukizuna, rolen eta genero-identitateen aniztasuna, idatzizko eta ahozko informazioan nahiz informazio ikonikoan, publizitate-ekintzetan, barne eta kanpo komunikazioan, komunikazio formalean eta informalean nahiz proiektua burutzearekin buruturiko edo lotutako materialetan.

QUINTO.- La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas aquellas acciones que requieran llevarse a cabo para el adecuado cumplimiento de este convenio se ejercerán conforme al principio de igualdad de mujeres y hombres y con el firme compromiso de velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente, fomentando la imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus
Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Hitzarmen honen arabera gauzatzen diren ekintzak Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana errespetatuz egingo dira. Plan horren helburua da Bizkaiko Foru Aldundian 2021-2024 ekitaldietan berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko esparru estrategikoa eskaintzea.

Las acciones que se lleven a cabo en virtud del presente Convenio se realizarán con respeto al VI Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia, cuya finalidad es ofrecer el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2021-2024.

SEIGARRENA.- Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

SEXTO.- En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honen esparrua eta bertan gauzatu beharreko alderdiak zehaztu behar dira; izan ere, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra araupetu duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20. artikuluko 2. puntuko c) idatz-zatian xedatu da aparteko kasuetan zuzenean eman ahal izango direla dirulaguntzak, hain zuzen ere interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa dela-eta, eta do behar bezala frogatutako beste arrazoiren bat, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudenean.

SÉPTIMO.- Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2.c), que podrán concederse de forma directa, con carácter excepcional, aquellas subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, económico o humanitario, y otras debidamente justificadas, que dificulten su convocatoria pública.

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Araudiaren 52 artikuluak dirulaguntza hauei buruzko berariazko arauen edukia zehazten ditu, era berean, espedientean dirulaguntzaren izaera berezia justifikatzen duen txosten bat sartzeko betebeharra.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 52 determina el contenido de las normas específicas reguladoras de estas subvenciones, así como el deber de incluir en el expediente un informe justificativo del carácter singular de la subvención.

Halaber, dirulaguntzaren onuradunen betebeharrak Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan arautzen dira.

Asimismo, las obligaciones de las personas beneficiarias de la subvención se regulan en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

Nolanahi ere, hitzarmen honen edukia ez dago Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututako kontratuen edukiaren barrukoa. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikuluan ezarritakoaren arabera kontuan hartuta erakunde esku-hartzaileek ez dutela merkatu-bokaziorik, eta haien arteko lankidetza argia ezartzen da, helburu erkideak lortzeko eta interes publikoa bermatzeko.

De cualquier modo, el contenido del presente convenio no está comprendido en el de los contratos regulados en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por el que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE, de 26 de febrero de 2014, de conformidad con lo establecido en el artículo 47.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, habida cuenta de la no vocación de mercado de las entidades intervinientes, estableciendo una inequívoca cooperación entre ellas para lograr objetivos comunes y garantizar el interés público.

Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 c) artikuluan araututa dago, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta zuzenbide pribatuko subjektu baten (MU ENPRESAGINTZA S. COOP.) artean hartutako hitzarmena baita.

El presente convenio se encuentra regulado en el artículo 47.2 c) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público al tratarse de un convenio adoptado en el ámbito de sus respectivas competencias entre la Diputación Foral de Bizkaia y un sujeto de derecho privado, como lo es MU ENPRESAGINTZA S. COOP.

Aurrekontuen abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arau Orokorra (martxoaren 1eko 14/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatua) garatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onetsi duen abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 43. artikuluaren arabera, berriz, hitzarmenak dira eta ondorio juridikoak dituzte herri-administrazioek, herri-erakundeek eta zuzenbide pribatuko subjektuekin edo haien artean lotuta edo haien mende dauden zuzenbide publikoko erakundeek helburu erkide baterako hartutako akordioak, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Aurrekontuen Foru Arau Orokorraren testu bateginaren bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera.

Por su parte, el artículo 43 del Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, modificado mediante Decreto Foral 14/2022, de 1 de marzo, establece que son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes entre sí o con sujetos del derecho privado para un fin común, conforme a la previsión recogida en la disposición adicional quinta del texto refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, aprobada mediante Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre.

Beraz, hitzarmena sinatzea erabakitzen dute

Así pues, ambas partes acuerdan suscribir el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

bi alderdiek. Honako hauek eraenduko dute hitzarmena:

KLAUSULAK

Lehena.- Hitzarmenaren xedea, dirulaguntzaren izaera berezia eta alderdi bakoitzak gauzatu beharreko jarduketak

Hitzarmen honen xedeak dira MU ENPRESAGINTZA S. COOP-ri (IFZ: F-20068490) zuzeneko dirulaguntza bat emateari lotutako baldintzak eta konpromisoak ezartzea, Open Data Bizkaiaren esparruan ikerketa-lana eta ekimen akademikoak garatzeko eta gauzatzeko.

Ikerketa-jarduera honen helburu nagusia Open Data Bizkaiaren bidez eskuragarri dauden datuen berrerabilpena bultzatzea da. Horretarako, datu horien erabiltzaile potentzialen beharrak aztertuko dira, bai eta ente publikoaren erantzuteko gaitasuna ere, lurraldearen garapen ekonomikoarekin eta interes orokorrarekin bat datozen beharrak sustatuz.

Helburu hori bi ikuspegi diferentzial eta osagarritatik garatuko da:

a) Alde batetik, Open Data Bizkaiaren erabiltzaile izan daitezkeen eragileen identifikazioan eta Open Data Bizkaiari eragiten dioten erantzukizun-arloekin zerikusia duten interes-eremuen tipifikazioan sakontzeko ikerketa egingo da. Helburu hori lurraldearen garapen ekonomikoarekin bat etorriko da.

b) Bestalde, (a) puntuan parte hartzen duten eragileetako bat unibertsitateak direla kontuan hartuta, ekimen akademikoak landuko dira argitaratutako datuekin aplikazio berriak garatzeko.

presente convenio, el cual se regirá por las siguientes

CLAUSULAS

Primera.- Objeto del convenio, carácter singular de la subvención y actuaciones a realizar por cada parte

El presente convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa a MU ENPRESAGINTZA S. COOP., NIF: F-20068490, para la financiación de un trabajo de investigación e iniciativas académicas en el ámbito de Open Data Bizkaia.

Esta actividad investigadora tiene como objetivo principal el impulso de la reutilización de los datos disponibles a través de Open Data Bizkaia. Para ello, se analizarán las necesidades de los potenciales usuarios de dichos datos, así como la capacidad de respuesta del ente público, potenciando aquellas necesidades que estén alineadas con el desarrollo económico del territorio, así como el interés general.

Este objetivo se va a afrontar desde dos perspectivas diferenciales y complementarias:

a) Por un lado, se realizará un trabajo de investigación para profundizar en la identificación de los agentes potenciales usuarios de Open Data Bizkaia y en la tipificación de aquellos ámbitos de interés relacionados con las áreas de responsabilidad que afectan a Open Data Bizkaia. El despliegue de este objetivo se alineará con el desarrollo económico del territorio.

b) Por otro lado, y considerando a las universidades como uno de los agentes involucrados en el punto (a), se trabajarán iniciativas académicas para desarrollar nuevas aplicaciones con los datos publicados.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

(a) ikuspegian erabiliko den lan-metodologiak honako etapa hauek izango ditu, ikerketa zientifikoko lanen metodologiari jarraituz:

I. Ikerketaren prestaketa: fase honetan, landu beharreko eremua mugatzearekin zerikusia duten zereginak sartzen dira (abiapuntutzat hartuta informazio-iturrien katalogo-lana, Bizkaia Opendatak egina, Aldundiak eskainitako zerbitzuak emateko behar diren datuen berrikuspenetik lortutako iturri gehigarriekin zabaldu daitekeena), bai eta aldez aurreko lanetan eta jorratuko diren esparruetako argitalpenetan artearen egoera berrikustea ere. Datu irekiak erabiltzeko interesa duten eta Opendata Bizkaiari eragiten dioten eskumen-eremuak identifikatuko dira.

II. Ikerketaren gauzatzea: etapa honetan datuak bilduko dira, eta ikerketan erabili beharreko teknikak eta ikuspegiak erabakiko dira. Kasu honetan, datu horiek aurreko fasean identifikatutako stakeholderrei egindako inkesten eta elkarrizketen bidez bilduko dira. Lortu nahi den informazio motak zerikusia izango du Opendata Bizkaiaren jardueran egin daitezkeen hobekuntzekin: informazio eremu berriak, datuak argitaratzeko eredua edo horien banaketa maila, besteak beste. Era berean, interesa justifikatzen duen motibazioan eta identifikatutako hobekuntza-proposamenean sakonduko da, informazio horrek aukera emango baitigu interes orokorrarekin lotura handiena duten ekimenak identifikatzeko. Fase hau apiriletik maiatzera bitartean egingo da.

III. Informazioaren prozesamendua: etapa honetan aurreko fasean lortutako datuen analisi kualitatibo eta kuantitatiboa egingo da. Azterketa honen helburua izan daiteke balizko

La metodología de trabajo que se utilizará en el enfoque (a) constará de las siguientes etapas, siguiendo la metodología de los trabajos de investigación científica:

I. Preparación de la investigación: en esta fase se incluyen las tareas relacionadas con la delimitación del ámbito a trabajar (teniendo como punto de partida el trabajo ‘catálogo de fuentes de información’ realizado por Bizkaia Opendata, que pudiera ser ampliado con fuentes adicionales obtenidas de la revisión de los datos necesarios para prestar los servicios ofrecidos por la Diputación) , así como la revisión del estado del arte en trabajos previos y publicaciones de los ámbitos que se tratarán. Se identificarán también los agentes interesados en la utilización de los datos abiertos, así como los ámbitos de competencias que afectan a Opendata Bizkaia.

II. Ejecución de la investigación: en esta etapa se realizará la recopilación de los datos, y se deciden las técnicas y enfoques a utilizar en la investigación. En el caso que nos ocupa, estos datos se recopilarán a través de encuestas y entrevistas a los stakeholders identificados en la fase anterior. El tipo de información que se quiere obtener estará relacionado con potenciales mejoras en la actividad de Opendata Bizkaia: nuevos ámbitos de información, modelo de publicación de los datos o nivel de desagregación de éstos, entre otras posibilidades. Así mismo, se profundizará en la motivación que justifica el interés y la propuesta de mejora identificada, ya que esta información nos permitirá identificar aquellas iniciativas que mayor correlación presenten con el interés general. Esta fase se desarrollará de abril a mayo.

III. Procesamiento de la información: en esta etapa se realizará el análisis cualitativo y cuantitativo de los datos obtenidos en la fase anterior. El objetivo de este análisis será la identificación y priorización de los ámbitos de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

erabiltzaileek proposatutako hobekuntza identifikatzea eta lehenestea, lehentasunak hiru ardatz hauetan oinarrituz:

• Eremuan interesa agertu duten stackeholder-en bolumena
• Informatutako erabilera-helburuak interes orokorrarekin lerrokatzea
• Deskribatutako interesa bat etortzea Opendata Bizkaia eskuduna den eremuekin.

Fase hau ekainetik urrira bitartean egingo da.

IV. Ikerketa txostenaren garapena: azkenik, txosten bat garatuko da, etapa guztietan egindako lana eta ikerketan lortutako ondorio nagusiak zehaztuko dituena. Laugarren fase hau irailetik abendura bitartean egingo da.

Prozesu horren fase bakoitzean, gutxienez bi une egongo dira, Opendata Bizkaiak lortutako aurrerapenak baliozkotu ditzan. MUk Opendata Bizkaiarekin lankidetzan egindako ikerketa-lanarekin argitalpen akademikoa garatzeko aukera izatea espero du.

Egindako lanaren emaitzak txosten batean sartuko dira, eta txosten horretan prestakuntza fasean egindako lana eta gauzatze eta analisi fasea sartuko dira. Txosten horretan, eta lanaren ondorio gisa, emaitza hauek sartuko dira:

• Epe ertainean egin beharreko proiektuen roadmap-a,
• Epe laburrean garatu beharreko lehentasunezko proiektua identifikatzea. Identifikazio hori garapenaren bideragarritasunean oinarrituko da, bai eta proiektu horrek lehentasunean aplikatutako ardatzetan duen kokapenean ere.

mejora propuestos por los potenciales usuarios, basando la priorización en los siguientes tres ejes:

• Volumen de stackeholders que han mostrado interés en el ámbito
• Alineación de las finalidades de uso informadas con el interés general
• Alineación del interés descrito con los ámbitos en los que Opendata Bizkaia es competente.

Esta tercera fase se desarrollará de junio a octubre.

IV. Desarrollo del informe de investigación: finalmente se desarrollará un informe donde se detallará trabajo realizado en todas las etapas, así como las principales conclusiones alcanzadas en la investigación. Esta cuarta fase se desarrollará de septiembre a diciembre.

En cada fase de este proceso se identifican, al menos, dos momentos de contacto para validar por parte de Opendata Bizkaia los avances obtenidos. MU espera poder desarrollar una publicación académica con el trabajo de investigación realizado en colaboración con Opendata Bizkaia.

Los resultados del trabajo realizado serán incorporados en un informe, dentro del cual se incluirá tanto el trabajo realizado en la fase de preparación, como las de ejecución y análisis. En este informe, y como conclusión del trabajo, serán incluidos los siguientes resultados:

• Roadmap de proyectos a realizar en el medio plazo,
• Identificación de un proyecto prioritario a desarrollar en el corto plazo. Esta identificación se basará en la viabilidad de desarrollo, así como en el posicionamiento de dicho proyecto en los ejes aplicados en la priorización.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

(b) ikuspegiari dagokionez, bi jarduera sartzea proposatzen da:

I. Storytelling: batetik, aplikazio bat garatzea, gaur egun ataritik eskura daitezkeen datuak erabiltzen dituena, Mondragon Unibertsitateak Bilbao AsFabrik campusean dituen Negozio Adimenerako Datuen Analisirako masterrean eta Business Data Analytics graduaren bistaratze-irakasgaiak ebaluatzeko jarduera gisa. Jarduera honen ikuspuntua storytelling gisakoa izango da, ebatzi beharreko problematikaren testuingurua barne, baita bistaratzea zertarako landu den deskribatzea eta bistaratzea bera ere.

II. Datathon motako jarduera: bestalde, fakultate mailan datathon motako ekimena garatuko da eta As Fabriken ematen diren gradu eta masterretako ikasleek parte hartu ahal izango dute 1.000 € bideratuko dira jarduera horretara.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du egindako ikerketaren azterketa bat egiteko eta haren ondorioak Open Data Bizkaia hobetzeko erabiltzeko, etorkizuneko planetan erabiliko baitu.

Ekimen akademikoei dagokienez, programa bakoitzean aurkeztutako lanik onenak Open Data Bizkaiaren eskura jarriko dira, eta, interesgarriak iruditzen bazaizkio, web atariko aplikazioen atalean argitaratuko ditu. Halaber, ikasleek proposatutako datu-multzo berriak irekitzea baloratuko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta MU ENPRESAGINTZA S. COOP-en ustez, egokia da gizarte berritzaile bat sustatzeko eta datu irekien bidez Bizkaiarentzat balioa sortzeko

Respecto al enfoque (b), la propuesta es incorporar dos actividades:

I. Storytelling: por un lado, el desarrollo de una aplicación basada en el uso de los datos actualmente accesibles desde el portal como actividad evaluativa de las asignaturas de visualización del máster universitario en Análisis de Datos para la Inteligencia de Negocio y del grado en Business Data Analytics que Mondragon Unibertsitatea imparte en su campus de Bilbao AsFabrik. El enfoque de esta actividad será de storytelling, incluyendo un contexto de problemática a resolver, así como una descripción de para qué se ha trabajado la visualización, además de la propia visualización.

II. Actividad tipo datathon: por otro lado, y con carácter voluntario, se va a desarrollar a nivel facultad una iniciativa tipo datathon, en la que podrán participar alumnos tanto de grados como de másteres que se imparten en As Fabrik. La dotación económica destinada a esta actividad será de 1.000€.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la realización de un análisis de la investigación llevada a cabo y a emplear sus conclusiones para la mejora de Open Data Bizkaia, que utilizará en futuros planes a desarrollar.

En lo que respecta a iniciativas académicas, los mejores trabajos presentados en cada uno de los programas se pondrán a disposición de Open Data Bizkaia para, en caso de considerarlos interesantes, proceder a su publicación en el apartado de aplicaciones del portal web. Asimismo, se valorará la apertura de nuevos conjuntos de datos propuestos por el alumnado.

La Diputación Foral de Bizkaia y MU ENPRESAGINTZA S. COOP. consideran adecuado poner en marcha iniciativas que se encaminen al desarrollo de actuaciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: KJ51-EEZ0-6DQV-I7UP
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

jarduerak garatzeko ekimenak abian jartzea. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak uste du ikerketa-lanak eragina duela Bizkaiko interes publiko, sozial eta ekonomikoan, Open Data Bizkaia atarian argitaratutako datuen berrerabilera areagotzea baitu helburu. Hala ere, proiektu hau abian jartzeko eta gauzatzeko, MU ENPRESAGINTZA S. COOP-k duen know-how bat behar da; kanpoko agentea da, kualifikazio handiko ikertzaileak ditu, arlo horretan aditua eta ibilbide profesional egiaztatua du.

tendentes al impulso de una sociedad innovadora y su aplicación para generar valor para Bizkaia a través de los datos abiertos. En consecuencia, la Diputación Foral de Bizkaia, considera que el trabajo de investigación repercute en el interés público, social y económico de Bizkaia en cuanto que tiene por objetivo aumentar la reutilización de los datos publicados en el portal Open Data Bizkaia. No obstante, la puesta en marcha y ejecución de este proyecto requiere de un know-how específico con el que cuenta MU ENPRESAGINTZA S. COOP. que es un agente externo que cuenta con personal altamente cualificado, experto en este ámbito y con una trayectoria profesional acreditada.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 52.3 artikuluarekin bat etorriz, Aholkularitza Teknikorako Ataleko Burutzaren txostena erantsi da, zeinak dirulaguntzaren izaera berezia eta laguntzaren salbuespenezko izaera eta horren interes publikoa justifikatzen baititu. Laguntza Bizkaiko lurralde historikoaren mesederako da eta proposatzen diren helburuak erdiesteko deialdi publikorik ez erabiltzea justifikatzen du.

No obstante, en el caso de la Diputación Foral de Bizkaia de conformidad con el artículo 52.3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, se adjunta informe de la Jefatura de Sección de Asesoramiento Técnico que justifica el carácter singular de la subvención, así como la excepcionalidad de la ayuda y su interés público, que redunda en beneficio de todo el Territorio Histórico de Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

<u>Bigarrena.</u>- Erakunde onuraduna

MU ENPRESAGINTZA S. COOP-k bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Bestalde, erakundeak aipatutako Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako betebehar guztiak bete beharko ditu.

<u>Segunda.</u>- Entidad beneficiaria

